



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu?”

2023ko irailaren 3a
Urteko 22. igandea (A)

Mateo 16, 21-27.

Une hartatik hasi zen Jesus bere ikasleei azaltzen, berak Jerusalemara igo eta zahar, apaizburu eta legemaisuen aldetik asko sufritu behar zuela; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztu egingo zela. Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion:

Ez dezala Jainkoak nahi, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko.

Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori:

Alde nire ondotik, Satanás! Oztopo haiz nireztat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik.

Orduan, esan zien Jesusek bere ikasleei: “Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzera hartu eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia bereganatzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin; eta, orduan, bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio.

Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori:

Alde nire ondotik, Satanás! Oztopo haiz nireztat, hire asmoak ez baitituk Jainkoarenak, gizakiarenak baizik.

PEDROK ENTZUN BEHAR IZAN ZUENA

José Antonio Pagola

Jesus agertu izanak ezustea, mirespena eta gogo-berotasuna eragin zuen Galileako herrietan. Erabateko arrakasta espero zuten ikasleek. Jesusek, aldiz, Aitaren nahia zuen gogoan. Azkeneraino bete nahi zuen nahi hura.

Horregatik, gainera zer zetorkion ikasleei argitzen hasi zen. Jerusalemara igotzea zuen bere asmo guztia, nahiz han «asko sufritu behar izango zuen», hain zuzen ere buruzagi erlijiosoen «eskutik». Jesusen heriotza Jainkoaren asmoetako zati zen, Jesusen jardueraren ezinbesteko ondorio. Baina Aitak piztu egingo zuen. Aita ez zen geldituko pasibo eta axolagabe.

Pedro matxinatu egin da Jesus gurutzera josia izango dela pentsatze hutsaren aurrean. Ez du ikusi nahi Jesus porrot eginik. Jesus garaile eta arrakastatsua bakarrik du amets. Horregatik, «aparte hartu du» Jesus, estu hartu du eta «errieta egin dio» esan berri duena ahaztu dezan: «Ez dezala Jainkoak nahi! Ez dakizuke horrelakorik gerta».

Oso bortitza da Jesusen erantzuna: «Ken nire begi-bistatik, Satanás». Ez du ikusi nahi Pedro bere begi aurrean, zeren «estropezu eragiten baitio», eragozpen du Pedro bere biderako. «Ez duzu pentsatzen Jainkoak bezala, gizakiek bezala baizik». Ez duzu pentsatzen gogoan bere seme-alaba guztien zoriona duen Aitak bezala, baizik gogoan beren ongizatea eta onura bakarrik duten gizakiek bezala pentsatzen duzu. Satanás haragi egina zara.

Aitaren errebelazioari xume-xume ireki zaionean, Jainko biziaren semetzat aitortu du Pedrok Jesus, eta bere Eliza eraikitzeko Jesusek aukeratu duen «Arroka» bihurtu da. Aldiz, giza onurari jarraituz, Jesus gurutzearen bidetik apartarazi nahi izan duenean, «Satanás tentatzaile» (!) bihurtu da.

Adituek azpimarratzen dute, ezen Jesusek Pedrori hitzez hitz hau esan diola: «Jar zaitetz (lerroan) nire ondoren, Satanás». Hori du bere lekua Pedrok. Jar zaitetz jarraitzaile leial nire ondoren. Ez ezazu pentsa nire bizia desbideratzea, nire egitasmoa boterera eta garaipenera norabidetuz.

Jesus «Jainko biziaren Semetzat» aitortu, eta hari gurutzera bidean jarraitu nahi ez izatea «satanasen» jokabidea da. Gaur egungo Elizan Pedrok bezala jokatu nahi badugu, Jesusen ahotik hark entzun zuen gauza bera entzun beharko dugu geuk ere.